

ez bai ez bai ez bai
bai ez bai ez bai ez
bai

Zer da GIBa?

Giza Inmuno-Eskasiaren Birusak (GIB) gure organismoaren defentsak suntsitzen ditu, eta honen ondorioz infekzioak, tumoreak eta beste hainbat gaixotasun sortzen dira. Hiesa GIBak eragindako infekzioaren fase larria da.

GIBa transmititzeko moduak:

- Sexu harremanetan koitoa praktikatzean preserbatiborik ez erabiltzea (baginala, uzukioa eta ahokoa).
- Odol kutsatuarekin kontaktuan egon den tresna ebakitzaileraren bat partekatzea: xiringak, orratzak, akupuntura, tatuaje, pircing-ak egiteko tresnak...
- Ama seropositiboa denean (GIBa dauka) birusa transmiti diezaiokere bere haurrari haurdunaldi, erditze edota edoskitze bitartean.

NOLA EZ DA TRANSMITITZEN GIBa?
Erabil ezazu preserbatiboa sexu harremanetan koitoa praktikatzan duzunean. Droga injektatuak kontsumituz gero ez partekatu xiringarik, orratzik eta injektatzeko den tresnarik.

GIBa ez da inolaz ere kasu hauetan transmititzen:

- Musu eman, besarkatu, ferekatu, eskua eman edota elkar ukitzean.
- Malko, izerdi, listu, eztl, doministikuak egitean.
- Eguneroko objektuak partekatzean (telefonoa, mahai-tresnak...), arropa edota elikagaiak.
- Dutzak, bainugela edo komunak partekatzean; igerilekuan, kiroldegi edo aisialdi guneetan, lantokietan, eskoletan eta eraikin publikoetan.
- Animalia, eltxo edota beste intsektuekin.
- Odola eman edo jasotzean, beti ere kontrolatuta dagoen herrialdeetan.

HIESAri (GIBa) buruzko ezjakintasun edota ezagutza okerrak, nola transmititzen den eta, batez ere, nola ez den transmititzen, GIBa duten pertsonen estigma eta diskriminazioa dakar.

INFORMA ZAITEZ ETA EZ DISKRIMINATU.

INFORMA ZAITEZ

Espainiako edozein puntutan zaudela, informa zaitez doan:
Gurutze Gorria: 900 111 000/informacionvih@cruzroja.es
900-ROSA: 900 601 601

Informazioa hiri eta autonomia-erkidegoen arabera:

ANDALUZIA	900 850 100/ www.juntadeandalucia.es/salud/vih
ARAGOI	900 111 000/ www.saludpublicaaragon.es
ASTURIAS	985 338 832/ www.pruebadeamor.org
BALEARRAK	971 176 855/ www.portalsalud.caib.es
KANARIAK	902 114 444/ 922 237590 www.gobiernodecanarias.org/sanidad/scs/sida.htm
KANTABRIA	942 207 745/ 732/ www.saludcantabria.org
GAZTELA-MANTXA	900 111 000 / www.jccm.es
GAZTELA ETA LEON	983 413 600/ www.salud.jcyles
KATALUNIA	900 212 222/ www.gencat.cat/salut
EXTREMADURA	924 382 641/ 924 382 594/ www.saludextremadura.com
GALIZIA	881 542 914/ http://dxsp.sergas.es
MADRIL	900 111 000/ www.madrid.org/www.sitelias.net
MURTZIA	900 706 706/ www.murciasalud.es
NAFARROA	848 423 396/ www.isp.navarra.es
EUSKADI	943 006 464/ www.euskadi.net/sida
ERRIOXA	941 291 976/ www.riojasalud.es
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	900 702 020/ www.sp.san.gva.es
CEUTA	856 205 009/ www.ceuta.es:8080/sanidad/principal
MELILLA	952 976 251 / www.melilla.es



Maita ezazu zeure burua
Egin ezazu proba. Erabili preserbatiboa.

Abenduak 1, Hiesaren Nazioarteko Eguna.

DETÉN EL SIDA. STOP SIDA. PARA LA SIDA
STOP AIDS. ATURA LA SIDA. GELDIARAZI HIESA. DETÉN A SIDA.
ОСТАНОВИТЕ СПИД. 拒绝爱滋. لتوقف الإيدز.



www.msps.es

Zertan datza GIB proba?

- GIB bidezko infekzioa detektatzen duen analisi espezifiko bat da.
- Ezin dugu egin zure baimenik gabe, emaitza isilpekoa da eta anonimoki egin daiteke.
- Proba dohainik da sare publikoko osasun-zentro guztietan eta sexu-bidezko gaixotasun-zentro guztietan. Gainera, GKE batzuetan ez dizute osasun-txartela eskatuko.
- Zentro batzuetan badira GIBa detektatzeko proba azkarrak eta emaitza 30 minutu baino lehen lor daiteke. Proba hauetan emaitza positiboa behin-behinekoa da eta beste proba bat egingo da behin-betiko emaitza lortze aldera. Emaitza negatiboak ez du konfirmazio beharrik.

Praktika arriskutsuren bat izan baduzu ez ezazu itxaron; joan zaitez zentro hauetakoren batera. Bertan zure kasua aztertuko dute, egin beharreko proba egingo dizute eta emaitza negatiboa baldin bada errepikatu behar duzun ala ez eta noiz egin behar duzun esango dizute.

Noiz eta nork egin beharko luke GIB proba?

- HAURDUN dagoen emakumeak, haurra izan nahi duenak.
- Sexu bidezko infekzioaren bat, tuberkulosia edo hepatitisia izan duen pertsona orok.
- Bikotekide egonkorra duen orok eta bikotekidearekin preserbatiborik erabili nahi ez duenak.
- Jarduera arriskutsu hauetariko EDOZEIN izan duen pertsona orok:

- Sexu-harremanetan GIBa duen edota infektatua dagoela ez dakien pertsonaren batekin preserbatiborik gabe koitoa praktikatzean (uzukioa, baginala eta ahokoa, isurketarik izan bada).
- Droga injektatzeko materiala partekatzen denean (xiringak, orratzak, koilarak, iragazkiak...)

ez bai ez bai ez bai
bai ez bai ez bai ez
ez bai bai ez bai ez
bai

GIB bidezko infekzioaren diagnostiko goiztiarra:

LEHENTASUN BAT

Espanian GIBak 120.000 eta 150.000 arteko lagun kopurua infektatu duela kalkulatu da. Hauen artean laurdena oraindik ez da jakitun. Honek zera esan nahi du: 35.000 lagunek baino gehiagok ez duela egon dauden tratamenduen onurarik izan eta GIBa transmiti diezaioketela sexua praktikatzan duen lagunari, berak jakin gabe.

120.000-150.000

35.000

Honengatik guztiagatik, aurten, Hiesaren Nazioarteko Eguna GIB bidezko infekzioaren inguruko kontzientziatziora dago zuzendua; **GIBaren PROBA** egiteko promozioa da.

GIB probaren emaitza positiboa garaiz ezagutzeak zera suposatuko dizu:

- Mediku-segimenduaren onura izatea.
- Tratamendu eraginkor bat jasotzea, zure bizi-kalitatea hobetuko duena eta zure biziraupena luzatuko duena.
- Beharrezkoak diren neurriak hartzea beste pertsonen infekzioaren transmisioa ekiditeko.



GAINERA...

Preserbatiboa da GIBaren transmisio, sexu bidezko infekzio eta nahi gabeko haurduntzaren kontrako babesik onena, beti ere egoki erabiltzen denean.

- GIBaren infekzio arriskua bizi du bai zakila sartzen duenak baita jasotzen duenak ere; azken honen kasuan arriskua areagotzen da genitalen lesioetan eta sexu bidezko infekzioetan.
- Sexu-harremanetan koitoa praktikatzan gero (uzukioa edo baginala), GIBa duen pertsonaren batekin edota GIBaz infektatua dagoela ez dakien batekin, erabil ezazu beti preserbatiboa. Erabili, gainera, lubrikatzailea uzukio sarketa praktikatzan duzunean.
- Ahoko sexuan GIBaren transmisioa eman ahal da hazia ahoan isurtzen bada. Beste hainbat infekzioaren transmisioa ere eman daiteke (gonokozia, sifilia). GIBaz ez infektatzeko erabil ezazu preserbatiboa edota ekidin ezazu isurketa ahoan.